

Hernaniko emakumeak pilotari

■ Ane Lujanbio

Hernanin 1954an Pilota Eskola sortu zenetik, ume asko ibili da pilota astinduz. Ume horiek gazte izatera pasa dira gure frontoietan eta kasu batzuetan baita heldu izatera ere. Bidean asko geratu badira ere, badira esku pilotatik palara pasa direnak. Nesken kasua izan ohi zen hau. Txikitan adin bereko mutilekin eskuz ibili eta gero, koxkortzean, 14 urterekin gutxi gorabehera, eskuan pala hartzen zuten. Gaur egun Hernaniko Pilota Eskolan neskak zuzenean hasten dira palarekin eta hauen pausuak Garbiñe Tijero entrenatzaileak zuzentzen ditu.

Gaur egun Hernaniko nesken artean palak duen arrakasta ikusita, orain arteko saiakera guztiak oso kontuan hartzekoak dira. Esate baterako, 1975. urtean hasi zen Urumea ikastola neskentzat pala txapelketa antolatzen. Horrela, Urumeako neskek 14 urte bete arte txapelketa honetan parte

hartzeko aukera zuten. Entrenamenduak Ezkialga pasealekuko frontoian izaten ziren, eta palaz jokatzeko zuten, baina teniseko pilotarekin. Urte haietako nesken entrenatzailea M. A. Intsausti izan zen, eta mutilena, berriz, Lino Garaia.



Para impulsar el deporte de la pelota en Hernani, hay que contar con instalaciones (frontón cubierto, etc.) En la fotografía presentamos a todos los finalistas del V Torneo de Urumea Ikastola (campeones y subcampeones) y a sus organizadores principales, Lino Garayar y Miguel Angel Inchausti. (Foto Biyok.)

Urumea Ikastolak antolatutako pilota txapelketako txapeldunak: Beatriz Altuna, Axun Olan, Garbiñe Tijero, Ixiar Urdangarin, Amaia Iraola, Idoia Tejedor eta Amaia Urnieta (argazkia: DV, 1979ko ekaina).

Hasiera bat ematea.

Hasiera guztiak bezala, Hernaniko emakumeentzat ez zen erraza izan palaz lehiatzen hastea, bidean topatu zituzten oztopoak zirela-eta. Beraientzat txapelketa ofizial baterako lehen deia 1990. urtean egin zuen Gipuzkoako Federazioak, hain zuzen ere 18 urte baino gutxiago zituzten neskei zuzendua. Baina adinez zaharragoak ziren neska pilotari asko zeudela ikusita, Koro Barrenetxea hernaniarrak zera proposatu zuen: txapelketa honetan helduagoek ere parte hartu ahal izatea. Hori dela eta, urte bereko maiatzaren 18an, neska talde bat elkartu zen Intxaurrendoko frontoian. Hainbat herritakoak ziren: Goizueta, Altza, Aia, Intxaurrendoko, Aizarra, Zarautz eta Hernanikoak, hala nola, Koro Barrenetxea, Ane Urruzola, Axun Olaran eta Garbiñe Tijero. Neska kopuru handia zegoela ikusita, aste bete beranduago hasi zen 1. Emakumezkoen Gipuzkoako Txapelketa (orduko Gipuzkoako Pilota Federazioko lehendakaria Josetxo Etxeberria zen eta bultzada polita eman zien neskei). Beraz, Barrenetxeak esandakoa kontutatu hartu eta 1990eko maiatzaren 25ean hasi zen 1. Gipuzkoako Txapelketa.

Federatzeko beharra sortu zen orduan. Lehenengo txapelketa honetan parte hartu ahal izateko federatu beharra zegoen eta neska guztiak Intxaurrendoko klubean federatu ziren, nahiz eta beste herritakoak izan. Intxaurrendoko Pilota

Elkartea sortu berria zen eta Rosi Cuevasek hartu zuen nesken ardura. 1991tik aurrera, bakoitza bere herriko Pilota Elkartean federatu zen. Hala ere, entrenamenduak Intxaurrendoko eta Alzako frontoietan izaten segitzen zuten, bakoitzaren herrietan ez zegoen neskentzat entrenatzeko lekurik. Urte hartatik aurrera, Federazioak urtero antolatu du Paleta Gomazko Nesken Gipuzkoako Txapelketa. Honez gain, Federaziotik aparte herrietako festetan antolatzen ziren txapelketetan ere parte hartu zuten neskek, esate baterako, Oiartzun, Lesaka edo Errenterian.

Paleta gomatik aparte, 1991. urtean trinketean ere hasi ziren, eta beraien entrenatzeko lekua Donostian dagoen Gaska trinketea izan zen, gaur egun berritze lanetan dagoena.

Urte haiek hastapenak ziren, eta ohikoa denez, zailtasun ugari zituzten, adibidez entrenamenduak egiteko ordu gutxi izatea, entrenatzailerik gabe aritzea bata besteari irakasten, edota herritik kanpora joan behar izatea entrenatzera. Batek baino gehiagok pentsa dezake, nola eta zergatik iraun zuen orduko nesken arteko mugimendu honek. Oztopoak oztopo, pilotaz gain beste gauza askok ere batu zituen emakume hauek, eta hasierako talde hartatik lagun talde bat sortu zen, frontoitik aparte harreman estua zuena. Lagun giro hartan egin zituzten mendi irteerak, bizikleta ibilaldiak, futbol partidak, bazkariak,... Eta horrela, errazagoa izan zen guztia.



Frontoitik kanpora ere batera ibiltzen dira neskak. Urtero saiatzen dira futbol partida bat antolatzen, gero bazkaltzera joateko.

Jarraitzeko bultzada.

Urteak aurrera joan ahala, beste behar bat sortu zen, agian garrantzitsuenetakoa. Garbiñe Tijerok harrobia lantzeko beharra sentitu zuen, eta umeak entrenatzen hasi zen 1992 urtean. Udal Kiroldegiko frontoian entrenatzen zuten larunbat goizetan, 9etatik 13etara libre zegoenean (hainbat ekitaldi ospatzen baitziren larunbatetan: bazkariak, jaialdiak...). Frontoian entrenatzeko orduak eskasak ziren orduan ere.

Hasiera hartako neska gazteak Ezkiaga pasealekuko frontoian topatu zituen Tijerok. Kasu bat aipatzearren, Goiatz Manzisor Urumea ikastolan ibilitako neska bat zen eta ondo aritzen zena palan. Hasieratik nabarmendu zen neska hernaniar hau, eta entrenatzaileak Intxaurrendoko frontoian entrenatzera bidali zuen, izan ere, han helduagoe-kin entrenatuz bere maila hobetuko baitzuen.



Goiatz Manzisor.

Garai haietan umeentzako ez zegoen txapelketarik baina elkarleen artean harreman ona bazegoen eta adibidez nesken topaketak egiten ziren Hondarribia, Igantzi, Bakaiku, Etxarri-Aranatzen. Pilotari hernaniarrek txapelketa askotan parte hartu izan dute betidanik, eta 2003. urtean entrenatzen hasi ziren orduko umeek maila bikaina dute gaur egun eta emaitza oso onak lortzen dituzte. Emaitza onak eta partaidetza nabarmentzekoak dira pilotari hernaniarren, Gipuzkoako Txapelketan izan ohi duten partaidetza adibidez.



2003an Hondarribian ateratako argazkia.



2003ko umeen entrenamendu bat. Gaur egungo pilotari nabarmenenak, harrobian hasitakoak dira. Argazkian: Ariane Arrieta, Maider Semper, Amaia Irazustabarrena eta Maider Huizi.

90eko hamarkadan biltzen ziren emakumeek denen artean erabakitzen zituzten zein izango ziren bikoteak. Pilotariak elkarte desberdinekoak izan arren, bikoteak mailaka osatzen ziren, txapelketetan maila orekatu bat egon zedin. Urte batzuetan horrela jardun ziren 1996 arte, Gipuzkoako Txapelketa elkartearen artekoa izaten hasi zen arte hain zuzen. Honela, bikoteen arteko mailan desoreka handia sortu zen, eta jende askok pilotan jokatzeari utzi zion. Ondorioz, federatuen fitxak gutxituz joan ziren pixkanaka.

2004an iritsi zen emakumeen arteko pilota bultzatzeko proiektua, hain ezaguna den *Emakumea Pilotari* ekimena. Pilota Federazioan izan zuen sorrera eta bultzatzaile nagusia Maider Mendizabal anoetarra izan zen. Ekimen honen oinarrian hasierako nesken filosofia zegoen, alegia, txapelketetako bikoteak mailaren arabera osatzea.

Emakumea Pilotari
ekimeneko aurkezpena
(Hernaniko KRONIKA,
2004-12-10).

HERNANIKO kronika

2004 urtea
Abenduak 10
Ostirala
Aloa: 1317
www.kronika.net

Emakumeetan pilota bultzatzeko plana egin dute, eta pelotariak azpiegiturak eskatu dituzte

■ Pelota Federazioaren proiektua da eta Diputazioaren, 10 udalen eta ikastolen babesa du ■ Pelota eskola kirolean, konpetizioan eta lagunartean indartzea da proposatu dituzten hiru lan eremuak.

EMAKUMEA Pilotari izeneko proiektua aurkeztu zuten atzo Diputazioan. Azken urteetan, geroz eta neska gutxiago dabil pilota federatuan (81 lizentziatik 43ra jeitsi dira) eta beharaldi horri buelta emateko asmoz dator lau urteko plan hori. Federazioetik etorri da iniziatiba, eta Diputazioaren, 10 udalen (tartean Hernanikoa) eta Ikastolen Elkartearen konpromisoa du proiektuak berekin.

Emakumeetan pilota bultzatzeko ekimen honek hiru eremu nagusitan lan egingo du: eskola kirolean, lehiaketetan, eta denbora librean pilota bultzatzen. Eskola kirola 10-16 urte bitarteko umeekin egiten da eta horri eustea oso garrantzitsua jotzen du planak.

Emakumearen batzordea Kirol federatuari dagokionez, proiektuaren helburuetako bat da emakume pelotarien kolektiboa inplikatzeko, horretarako bideak jarrita. Hala, Federazioko erabaki organoetan emakumeek aginte gehiago izango du eta Emakume Pelotarien Batzarrak sortuko da, kolektibo osoa bilduko duena.



Hernanitik, Iñaki Barrio kirol zinegotzia, eta Ane Lujanbio eta Garbiñe Tijero pelotariak izan ziren.

GARBINE TIJERO (PELOTARIA)

"Behar zen proiektu hau eta ilusioa pizten duen zerbait da."

Kirol mailan, Gipuzkoan hiru teknifikazio gune sortzea da proposamenetako bat, eta lehiaketa egutegi aproposa

osatzeko beste.

Azkenik, garrantzi berezia eman zaio konpetizioa utzi edo hor ibili nahi ez duten neskek lagunartean pelotan ibiltzeko errezitasunak emateari.

Emakumea Pilotari lau urteko proiektua da eta 140.000 euroko aurrekontua du. Hernaniko Kirol Patronatuak dena 6.000 euro jarriko ditu lau urteko epean.

Trinketeak behar dira

Proiektuarekin denak konforme ziren, baina, pelotariak nabarmendu dute azpiegitura premia handia dagoela. "Gipuzkoa pelotari neskek munduko txapelketak jokatzeko ari dira eta hemen ez dago (maila horretako) trinketerik" bota zuen Garbiñe Tijerok. Federazioko lehendakariak proposatu zuen eskualde bakoitzeko bat jartzea. □



Garbiñe Tijero eta Ane Lujanbio pelotariak, aurkezpenean.

Hernanin jendez oso ondo

GIPUZKOAN geroz eta emakume pelotari gutxiago badaude ere, Hernanin ia alderantziz gertatzen da, urteetako lanari esker. Garbiñe Tijerok atzoko aurkezpenaren azaldu zuen Hernanin 8-15 urte bitarteko 40 neska dabilzela pelotan: "Eta, aurtun topea hor jarri behar izan dugu, ezin gure elako jende gehiago hartu"

esan zuen pelotari eta entrenatzaile heraniarrak. Tijerok jendearengana iristeko herri-komunikabideen garrantzia azpimarratu zuen.

"Hernanin orain dugu arazoa da, batez ere kadeteetan, beste herrietan ez dagoela pelotariak eta beti gure artean bakarrik jokatu beharra daukagula" dio Tijerok. □

Egitasmo honek herri askotan nesken pilota bultzatu zuen, eta gure herrian adibidez, pala, Eskola Kirolaren eskaintzan sartu zen. 2004. urte arte neskak larunbatetan bakarrik biltzen ziren, baina 2004an lehen neskata "ofizialak" hasi ziren jokatzeko, beraz, Kiroldegiko pilotalekuan entrenatzeko ordu gehiago lortu ziren. Geroztik gaur arte, urtero Hernaniko neskak txapelkun izan dira Eskola Kiroleko Txapelketetan, maila batean ez bazen, bestean. Gaur egun ere txapelketa ofizialez gain, herri askotako torneotara joaten dira Hernaniko neskak, adibidez, ESAIT-ek antolatutako txapelketan ere parte hartu zuten 2009an Behobian.

Zazpi urte pasa eta gero, *Emakumea Pilotari* proiektuak martxan jarraitzen du, eta esan beharra dago, pilotari asko dagoela ekimen honetan parte hartzen. Hasierako helburuetan hiru foku nagusitzen ziren: federatuak, umeak eta helduak. Lehenik federatu eta umeekin lanean hasi ziren eta gero, helduekin. Hauentzat, Gipuzkoako Federazioa entrenatzaileak jartzen hasi zen 2005-2006 kurtsoetik aurrera. Garrantzitsua da Kiroldegia eskaintzen dituen beste ikastaroen artean helduentzako pala ere badagoela jakitea. Hauentzat ere herrian entrenatzeaz gain, Gipuzkoako Emakume Pilotari heldu guztien eguna ospatzen dute urtean behin.



Hernaniko pilotariak
ESAITek antolatutako
txapelketan.



Irurako pilotalekuan
Emakumea Pilotari Egunean
ateratako argazkia, pilotari
helduak (2010eko
maiatzaren 10ean).

Zubietako Pilota Eskola

Gaur egun Zubietan bertako eta Usurbileko neska talde bat paleta gomaz aritzen da bertako frontoi estalian. 2005. urtean hernaniarrak hasi ziren bertako neskak entrenatzen, eta hauek izan dira han ibili diren Hernaniko entrenatzaileak: Garbiñe Tijero, Ane Lujanbio eta Garazi Jauregi (gaur egun darrai).

Hernaniarrak munduan.

Herri mailako txapelketetatik mundu mailakoetara ere pasa dira herriko zenbait pilotari. Mundialak beti trinketeen jokatu izan dira gaur egun arte. Mundialetara joan zen lehen emakume hernaniarra Ainhoa Berridi izan zen. Argentinara bidaiatu zuen 1993ko azaroan eta Espainiako Federazioarekin jokatu zuen.

Lehen aipatu dugun Goiatz Manzidor oso gazte hasi zen Munduko Txapelketak jokatzeko. Hauek dira Manzidorrek jokatu dituen nazio arteko txapelketak:

- 1997an, Arnedon 22 urte azpikoen Munduko Trinkete Txapelketa jokatu zuen; hirugarren postua lortu zuen.
- Baionan Munduko Kopa irabazi zuen, 2000. urtean.
- 2001ean, Uruguayan 22 urte azpikoen Trinkete Txapelketa txapeldunorde gelditu zuen.
- Eta azkenik, 2002. urtean Munduko Trinkete Txapelketako txapeldunorde izan zen, Iruñean.

Ainhoa Berridi Mundialetara joan zeneko prentsako berria.

PAIS VASCO / COMARCA

MARTES, 16 DE NOVIEM

▼ HERNANI

Ainhoa Berridi disputará el próximo Mundial de pala en Argentina

Formará parte de las dos parejas que representan a España en Trinkete

KARMELE G. LEGARRETA
DIV. HERNANI

Al grupo de mundialistas, por supuesto reducido, dentro del deporte hernaniarra, se incorpora esta vez la palista Ainhoa Berridi, quien sale hoy martes hacia la capital argentina.

Los Campeonatos del Mundo de pelota en trinkete se van a disputar del 20 al 27 de este mes de noviembre y en ellos estará representando a España en pala femenina Ainhoa Berridi, quien previamente ha llevado a cabo una intensa preparación alternando un Centro Deportivo de Iruña con otro de Donostia, y siempre bajo la supervisión de preparadores técnicos y físicos, además de un médico y masajista.

De 19 años de edad, domiciliada en el barrio Santa Bárbara y cursando estudios de mecánica en la Escuela Karmelo Labaka, esta palista logra para ella, para el Club Deportivo y para Hernani en general, una gran distinción al lograr el carácter de mundialista.



Equipo femenino de palistas con Ainhoa Berridi, de pie en el centro. BYOK

Formará pareja con Maider Mendizábal, de la localidad de Anoeta, y se enfrentará a varias naciones, entre las que Francia puede estar como principal rival, si bien será a partir del día 20 cuando haya lugar a la confirmación.

Además de Berridi-Mendizábal en los Mundiales femeninos intervendrá otra pareja navarra al ser doble la representación española.

Un buen palmarés

Hace 4 años, Ainhoa Berridi Larraite inició la competición en distintos campeonatos y un año más tarde lograba su primer éxito, consiguiendo la primera txapela en Hernani, en las fiestas patronales de San Juan. El pasado año 1992 fue campeona de Gipuzkoa en Liga Vasca, formando pareja con la también hernaniarra Gar-

biñe Tijero. Este año de 1993, consigue el «doblete» con el Campeonato de Donosti y el de Liga Vasca, en ambos casos formando pareja con la jovencísima Maider Mendizábal, su actual compañera desde el viernes próximo en Buenos Aires.

No debe dejarse pasar por alto, que una tercera palista hernaniarra, Koro Barrenechea, también forma parte de la representación en los distintos Campeonatos que se celebran, además de que a su vez ocupa el cargo de delegada en la Federación guipuzcoana.

A la joven mundialista y demás componentes de la selección se les desea un buen viaje y toda clase de aciertos y éxitos en el Campeonato a disputar en Buenos Aires.

2006. urtean Hernaniko jubeniletako hiru neska Errepublika Dominikarrera joan ziren, Euskadiko Selekzioarekin Topaketa batean parte hartzera. Leire Lucas, Garazi Jauregi eta Ane Lujanbio. Santo Domingo hiriburuan 10 egun pasa zituzten Argentina, Venezuela, Kuba eta beste herrialde batzuetako pilotariek palaz lehiatzen.

Bestalde, urte berean Garbiñe Tijero Venezuelan izan zen Aste Santuan, Euskal Herriko Pilota Konfederazioak (EHPK) antolatutako txapelketan. Han ere herrialde desberdinetako pilotariak bildu ziren, eta Tijerok paleta gomaz jokatu zuen Donostiako Miren Randez bikotearekin.

Hernaniko Kronikan (2006-04-08) ateratako argazkia: Jauregi, Lucas eta Lujanbio.



Venezuelan EHPKrekin egondakoak: Miren Randez, Iera Agirre, Garbiñe Tijero eta Maider Otegi.



2010. urtean Irati Ugalde Argentinara joan zen Espainiako Federazioarekin eta trinketean aritu zen.

«CADA VEZ HAY MÁS CHICAS QUE JUEGAN A PELOTA»

MARGA MÉNDEZ

El miércoles de la semana pasada el Ayuntamiento de Hernani homenajeó a los mejores pelotaris de la localidad. Entre ellos estaba Irati Ugalde. Esta joven, estudiante de 4º de ESO y a la que le gusta la rama biosanitaria, acaba de ganar el campeonato de Gipuzkoa de Trinkete junto a su pareja deportiva Eneritz Pérez.

¿Cómo fue la final del Campeonato guipuzcoano disputada con otro equipo de Hernani?
Empezamos perdiendo pero luego remontamos y ganamos por 22-30.

También ha sido, junto a Eneritz Pérez, campeona de Euskadi de frontón, ¿qué les queda por ganar?
Bueno, perdimos el Campeonato de Gipuzkoa de frontón... Ahora empezamos a jugar la Liga Vasca en el trinkete, a ver qué tal se nos da.

¿Qué le gusta más jugar en frontón o en trinkete?
Ando mejor en frontón pero el trinkete me parece más bonito porque es más vivo y dinámico.

Ha sido preseleccionada para ir al Mundial Sub-22 de trinkete que será en Argentina, ¿contenta?
Sí, sí, porque no me lo esperaba. Estamos preparándonos en Pamplona. He hecho ya dos concentraciones.

¿Cree que será seleccionada?
Es muy difícil.

¿Por qué?

Es que soy de las más pequeñas y además hay mucho nivel. Yo, sólo con estar preseleccionada ya estoy contenta.

¿Me puede contar en qué consiste el campeonato GRAVN que están jugando actualmente?

Es un campeonato en el que participa Gipuzkoa, Bizkaia, Araba, Rioja y Navarra.

Entre todos esos territorios, ¿se puede decir que son las guipuzcoanas las que mejor juegan?

Yo creo que sí porque ya estamos en las semifinales.

¿Cómo empezó a interesarse por la pelota?

De pequeña jugaba con mis amigos jugando a frontón a mano. Y una vez me vió la entrenadora Garbiñe Tijero y me dijo que había un grupo de chicas que entre naba a pala y a ver si quería empezar. Así que empecé con ellas y hasta ahora.

¿Qué es lo que más le gusta de este deporte?

Que conoces a mucha gente.

¿Cómo animaría a jugar a pelota?

Diría que hay muy buen ambiente entre nosotras y que lo pasamos muy bien.

¿Hacen falta jugadoras en Gipuzkoa? Hombre, cuantas más vengan mejor pero la verdad es que cada vez somos más chicas jugando a pelota. Ahora hay muchas jóvenes que han empezado a jugar.



Azkenik, aurtengo apirilaren 11n Amaia Irazustabarrena hernaniarra eta Loiola Zuazu irundarra Uruguayn izan dira, Euskadiko Selektzioarekin jokaturako trinketeko Torneoan.



Loiola Zuazu eta Amaia Irazustabarrena, Venezuelara joan ziren pilotariek.



Irati Ugalderi egindako elkarriketa (DV, 2009-04-16).



Ama-alabak, Garbiñe Tijero eta Maider Semper. Lehenengo argazkia 1997. urtean ateratakoa, eta eskuinekoa 2008an.

Bitxikeriak.

Belaunaldi askotako emakumeak biltzen dira frontoietan, eta gertuko kasua dugu Garbiñe Tijerorena, bere alaba jaioz geroztik frontoietan hazi duena. Hernaniko entrenatzaileak kontatu digunez, 2008an Etxarriko txapelketan bere bikote zen Arantxa Elizegik lesio bat zuela-eta, ezin zuen jokatu, eta Maider alaba eskaini zen txapelketa hura berarekin jokatzeko. Txapelketa hartan, finalerdietaraino ere iritsi ziren, eta finalerdiko partiduan txapeldunak izango zirenen aurka galdu zuten bi hernaniarrak, Aristorena-Contin bikotearen kontra.

Arazo eta zailtasunak.

Pilotari guztien arazoa da entrenatzeko ordu gutxi edukitzea. Arazo hau aspalditik dute pilotariek, eta gaur egun oraindik ez dituzte nahiko ordu. Gainera, Tijero entrenatzaileak esan digunez, 18 urte arte bermatua dago neskak pilotan aritzea, baina pixkanaka hartzen dituzten beste ardurengatik (ikasketak, lana, etab.) pilota utzi egiten dute.

Beste behar bat ere badute pilotariek: trinketearen beharra. Euskal Herrian ezker horman jokatzen den arren, mundu mailan trinketea dago homologatua. Eta trinketeko txapelketetan ez dute talde gehiagok parte hartzen, non entrenatu ez daukatelako. Tijeroren proposamena hau da: *Hernanin, Galarretan adibidez obrak egiten ari direla, eta hori aprobetxatuz ondo legokeela bertan trinkete bat eraikitzea. Aurtengo Trinketeko Emakumea Pilotari Txapelketa ez da jokatu, hain zuzen maiatzean lanengatik itxi zirelako entrenatu ohi duten trinketeak.*

Argazkiak.

Hona hemen, zenbait urtetako pilotari federatuen argazkiak. Urtero, eguberrietan Hernaniko Pilota Elkarteak egutegiak saltzen ditu, urte guztiko materiala etab. ordaintzeko, diru-sarrera moduan.

1994. urteko neska federatuak.



2002ko neska federatuak.



2003ko neska federatuak.



2007ko neska federatuak.



2010eko neska federatuak.



Eskertzak.

Bukatzeko, pilotariek eskerrak ematen dizkiote Hernaniko Epele auzoan dagoen Arkema enpresari, Pala Eskolako infantilentzat kamisetak eta sudaderak emateagatik. Eta baita Hernaniko Kronikari, bertan beraien jarraipena egiten dutelako. Eta nola ez, Garbiñe Tijero entrenatzaileari ere eskerrak eman beharrean gaude, pilotan entrenatzen egin duen eta egiten ari den lanagatik, eta lan honetan izan duen parte hartzeagatik.

BIBLIOGRAFIA

- Hernaniko Kronika.
- Diario Vasco egunkaria.
- www.palakoak.blogspot.com.
- [www.blogak.dobera.com/paletariak/...](http://www.blogak.dobera.com/paletariak/)
- www.blogak.com/emakumeapilotari.